

DK202316 DEKRETUA – UR-MIA SOLAS ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ONARTZEA

Gaurko datarekin Auzo alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Ereñotzun, 2023ko abenduaren 29an

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak hitzarmen bat du Ur-mia Solas Elkartearekin, non bigarrenak 1.050€ jasotzen dituen urtean zehar aktibitate desberdinak egiteko. Hauetatik 550€ kultura jardueretarako erabiltzen dira eta 500€ elkartearen Bola eta Toka atalaren jardueretarako.

2023ko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Ur-mia Solas Elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Ur-Mia kirol eta solas elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 1.050 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez.

Hirugarrena.- Ordainketa, hitzarmenaren bostgarren klausulan jasota bezala egitea: diru-laguntzaren %60 (630€) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %40 (420€) justifikazioa aurkeztean.

Olatz Juantorena Aizpurua auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, udal idazkariordearen delegatua naizen honek ziurtatu dut.

Auzo Alkatea

Fede ematen dut:
Udal Idazkariordearen delegatua